

ZIURTAGIRIA/ CERTIFICADO

ESPEDIENTE EXPEDIENTE Nº	ZK./	KIDE ANITZEKO ÓRGANO COLEGIADO	ORGANO/ ORGANO	SAIOAREN DATA/ FECHA DE LA SESIÓN
9437/2026		Tokiko Gobernu Batzordea / Junta de Gobierno Local		19/05/2026

ORGANO HONETAKO IDAZKARIA NAIZEN ALDETIK, ZIURTATZEN DUT:

Goian adierazitako egunean egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zen:

EN CALIDAD DE SECRETARIO/A DE ESTE ÓRGANO, CERTIFICO:

Que en la sesión celebrada en la fecha arriba indicada se adoptó el siguiente acuerdo:

GAZTEEI ZUZENDUTAKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA ONARTZEA, 2025. ETA 2026. URTEETAN GETXON ETXEBIZITZAK ALOKATZEKO GASTUEN ZATI BAT ORDAINTEKO. /APROBAR LA CONVOCATORIA DE SUBVENCIONES DESTINADAS A LOS JÓVENES PARA SUFRAGAR EN PARTE LOS GASTOS DE ALQUILER DE VIVIENDA EN GETXO DURANTE LOS AÑOS 2025 Y 2026.

Alde/ Favorable	Bozketa mota/ Tipo de votación: Ahobatezkotasuna/Onespena/ Unanimidad /Asentimiento
--------------------	---

EGITATEAK ETA ZUZENBIDEKO OINARRIAK/ HECHOS Y FUNDAMENTOS DE DERECHO

Kontuan izanik ondorengo	Habida cuenta de los siguientes
AURREKARIAK	ANTECEDENTES
LEHENENGOA.- Getxoko Udaleko 2023/2027 Dirulaguntzen Plan Estrategikoak, Alkatetzaren azaroaren 23ko 5636/2023 Dekretuaren bidez onartuak, bere ildo estrategikoen artean etxebizitzaren alokairua sustatzea jasotzen du, eta bereziki, modu independentean bizi diren gazteen kopurua handitzea.	PRIMERO.- El Plan Estratégico de subvenciones 2023/2027 del Ayuntamiento de Getxo aprobado por Decreto de Alcaldía 5636/2023, de 23 de noviembre, contempla entre sus líneas estratégicas fomentar el alquiler de viviendas, y en especial, incrementar el número de jóvenes que viven de forma independiente.
BIGARRENA.- Deialdi honen helburua da gazteei emantzipatzeko eta helduen munduan sartzeko prozesuan laguntzea, eta udalerrian etxebizitza bat eskuratu eta bertan gera daitezen sustatzea, alokairu-erregimenari lehenetsua emanez.	SEGUNDO.- La finalidad de la presente convocatoria es apoyar a las personas jóvenes en su proceso de emancipación e incorporación al mundo adulto y promover el acceso a la vivienda y permanencia en el municipio, priorizando el régimen de alquiler.

TGB ERABAKI ACUERDO JGL
Zenbakia: 2026-0101 Data: 19/05/2026

Baliozkotze Kod.: 6RDHS6GOWOND4SWLXNP5GNCP
Egiaztagarria: <https://sede.getxo.eus/>
esPublico Gestiona Plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 1. orrialdea, guztira 4



<p>HIRUGARRENA.- Deialdi honetan dirulaguntzaren onuradun izateko gehieneko diru-sarreraren mugak eguneratu dira, hau da, 29.784 € A eta B motako bizikidetzak unitateentzat, eta 46.463 € C motakoentzat, etxebizitza bat okupatzeko eskubide subjektiboari buruzko urriaren 10eko 147/2023 DEKRETUAREN azken xedapenetako lehenengoaren 2. paragrafoan aurreikusitakoarekin bat etorritik (2023/10/25eko EHAA).</p>	<p>TERCERO.- En la presente convocatoria se han actualizado los límites de ingresos máximos para ser beneficiaria de la subvención, es decir, 29.784 € para unidades de convivencia del tipo A y B; y 46.463 € para las del tipo C, en coherencia con lo previsto en la Disposición Final Primera, apartado 2, del DECRETO 147/2023, de 10 de octubre, del derecho subjetivo de acceso a la ocupación de una vivienda (BOPV de 25/10/2023).</p>
<p>LAUGARRENA.- Errealitate sozial ezberdinei erantzun emanez, eskabidea norbanako bezala zein seme-alabadun edo gabeko bizikidetzak unitate modura egiten duten gazteak izan ahalko dira dirulaguntzaren hartzaile.</p>	<p>CUARTO.- Las ayudas económicas tienen como destinatarias tanto a personas jóvenes que lo soliciten a título individual, como a aquellas que formen parte de unidades convivenciales, con o sin hijos, de forma que se contemplan realidades sociales diferentes a las que se debe dar respuesta.</p>
<p>BOSGARRENA.- Horregatik guztiagatik, Ondare eta Etxebizitza Unitateko zinegotzi arduradunak eskatu du hasiera ematea gazteei diru-laguntzak emateko prozedurari, lehia bidez, eskabide osoen sarrera-erregistroaren hurrenkeraren arabera, aurrekontu-kreditua agortu arte, lehen aipatutako epealdirako Getxon ohiko etxebizitzaren alokairu-errentaren zati bat ordaintzeko.</p>	<p>QUINTO.- Por todo lo anterior, el Concejal responsable de la Unidad de Patrimonio y Vivienda solicita el inicio del procedimiento de concesión de subvenciones, mediante concurrencia, por orden de registro de entrada de solicitudes hasta agotar el crédito presupuestario, destinadas a las personas jóvenes para sufragar parte de la renta de alquiler de la vivienda habitual en Getxo para el periodo anteriormente indicado</p>
<p>Eta ondoren hauetan oinarriturik</p>	<p>Y sobre la base de los siguientes</p>
<p>ZUZENBIDEKO OINARRIAK</p>	<p>FUNDAMENTOS DE DERECHO</p>
<p>I.- Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra.</p>	<p>I.- La Ley 38/2003 de 17 de noviembre, General de Subvenciones.</p>
<p>II.- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21eko, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Araudia onartzen duena.</p>	<p>II.- Real Decreto 887/2006 de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.</p>
<p>III.- Getxoko Udalaren eta bere erakunde autonomoen dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorra, Getxoko Udalaren</p>	<p>III.- Ordenanza General de subvenciones del Ayuntamiento de Getxo y sus Organismos Autónomos, aprobada inicialmente por el Pleno</p>

TGB ERABAKI ACUERDO JGL
 Zenbakia: 2026-0101 Data: 19/05/2026

Baliozkotze Kod.: 6RDHS6GOWOND4SWLXNP5GNCP
 Egiarjapena: <https://sede.getxo.eus/>
 esPublico Gestiona Plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 2. orrialdea, guztira 4



<p>Osoko Bilkurak 2021eko abenduaren 23an egindako bilkuran hasieran onartua eta 2022ko martxoaren 16ko 52 zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratua, Getxoko Udalaren Osoko Bilkurak 2024ko azaroaren 28an egindako bilkuran hasieran aldatua eta 2025eko otsailaren 7ko 26 zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratua.</p>	<p>del Ayuntamiento de Getxo en sesión celebrada el día 23 de diciembre de 2021 y publicada en el Boletín Oficial de Bizkaia número 52 del 16 de marzo de 2022, modificada inicialmente por el Pleno del Ayuntamiento de Getxo en sesión celebrada el día 28 de noviembre de 2024 y publicada en el Boletín Oficial de Bizkaia número 26 del 7 de febrero de 2025.</p>
<p>IV.- Ebazpen hau emateko eskumena Tokiko Gobernu Batzarrari egokituko zaio, alkateak egindako eskuordetzearen ondorioz, ekainaren 17ko 3339/2023 Dekretuaren bitartez (3. atala, i letra).</p>	<p>IV.- La competencia para dictar la presente resolución corresponde a la Junta de Gobierno Local, por delegación efectuada por la Alcaldesa en virtud del Decreto 3339/2023, de 17 de junio (apartado 3 letra i).</p>
<p>Getxoko Udaleko Ondare eta Etxebizitzako Unitateko zinegotzi arduradunak hala eskatuta, Udaleko Gobernu Batzarrari honako hau igortzen zaio kontuan har dezan.</p>	<p>A instancia del Concejal Responsable de la Unidad de Patrimonio y Vivienda del Ayuntamiento de Getxo se eleva a la consideración de la Junta de Gobierno Local la siguiente.</p>

2026(e)ko maiatzaren 8(a)(e)ko PR/2026/4716 ebazpen proposamena ikusita, 2026(e)ko maiatzaren 11(a)(e)an aldeko fiskalizazioa jaso zuena./ Vista la propuesta de resolución PR/2026/4716 de 8 de mayo de 2026 fiscalizada favorablemente con fecha de 11 de mayo de 2026.

EBAZPENA/ RESOLUCIÓN

<p>LEHENENGOA.- 2025ean eta 2026an Getxon etxebizitza alokatzeko gastuak zati batean ordaintzeko gazteei dirulaguntzak emateko berariazko oinarriak onartzea. Aipatutako oinarriak dagokion espedientean jasotzen dira.</p>	<p>PRIMERO - Aprobar las bases específicas reguladoras de la concesión de subvenciones destinadas a los jóvenes para sufragar en parte los gastos de alquiler de vivienda en Getxo durante los años 2025 y 2026, las cuales figuran en el expediente de su razón.</p>
<p>BIGARRENA.- 2025ean eta 2026an Getxon etxebizitza alokatzeko gazteei dirulaguntzak emateko deialdia onartzea.</p> <p>Diru-laguntzak aurreko puntuan zehaztutako oinarri berezien arabera emango dira.</p>	<p>SEGUNDO.- Aprobar la convocatoria para la concesión de subvenciones a otorgar a las personas jóvenes para el alquiler de vivienda en Getxo durante los años 2025 y 2026.</p> <p>Las ayudas se otorgarán de acuerdo con las bases específicas referidas en el punto anterior.</p>
<p>HIRUGARRENA.- Gastua egitea baimentzea, zenbatekoa 200.000€ (BERREHUN MILA) eurokoa duela, deialdi honen bitartez emateko diren diru-laguntzak, eta aurrekontu-partida honen kontura</p>	<p>TERCERO.- Autorizar el gasto por importe de 200.000€ (DOSCIENTOS MIL) euros destinado a la financiación de las ayudas objeto de la presente convocatoria, con cargo a la partida presupuestaria 06000 15200 4800000.</p>



<p>egingo da: 06000 15200 4800000.</p> <p>50.000 (berrogeita hamar mila euro) gehiago xedatu ahal izango dira, salbuespen gisa, betiere kreditua eskuragarri dagoela adierazteko baldintzapean eta, hala badagokio, bidezko aurrekontu-aldaketa onartu ondoren dirulaguntza emateko ebazpena eman baino lehen. Kreditu erabilgarrien deklarazio hori eta kreditu horien behin betiko banaketa deialdiaren bitarteko berberetan argitaratuko dira, eta publizitate horrek ez du ekarriko eskabide berriak aurkezteko epea irekitzea, ez eta ebazteko epe berria hastea ere.</p>	<p>Se podrá disponer excepcionalmente de una cantidad adicional de 50.000 (cien mil euros) siempre condicionado a la declaración de disponibilidad de crédito y, en su caso, previa aprobación de la modificación presupuestaria que proceda, en un momento anterior a la resolución de la concesión de la subvención. Dicha declaración de créditos disponibles así como la distribución definitiva de los mismos será publicada en los mismos medios que la convocatoria, sin que tal publicidad implique la apertura del plazo para presentar nuevas solicitudes ni el inicio de nuevo cómputo de plazo para resolver.</p>
<p>LAUGARRENA.- Oinarriak eta deialdia dagokion hedabideetan argitaratzea.</p>	<p>CUARTO.- Publicar las bases y la convocatoria en los medios que corresponda.</p>

Eta dagozkion ondorioetarako jasota gera dadin, idazki hau sinatzen dut, lehendakariaren oniritziarekin.

Y para que conste a los efectos oportunos, firmo el presente con el visto bueno de la Presidencia.

**ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA/ DOCUMENTO FIRMADO
ELECTRÓNICAMENTE**

TGB ERABAKI ACUERDO JGL
Zenbakia: 2026-0101 Data: 19/05/2026

